

## Seme-alabak Espainiaren alde



**RUBEN SÁNCHEZ  
BAKAIKOA**  
IRAKASLEA

nor ez al doa bolantean? Hego Euskal Herrian, behintzat, badirudi euskal *soufflearen* hustuketak ez duela ez ete-nik, ez azkenik.

Gaur egungo ume eta nerabeek *euskal gizartean* ikusten dutena da asimilazio handi bat eta kontraktotasun gutxi. Ez dute ezer hutsetik asmatzen, gizartea hauteman eta egokitzen dira. Eta gauzak aldatu dira:

- Euskararen erabilera beherantz doa arnagune deritzan haietan (ere). Hango ume eta nerabeek (ere) inoiz baino goizago heltzen diote erdarari. Izan ere, ETB3 4-5 urte betetzen dituztenerako uzten dute, *Goazen* 10 bat urterekin, eta gainerako guztia erdaraz kontsumitzen dute gehien-gehienek.

- Helduen artean independentismoa inoizko portzentajerik baxuenetan dago. Eta hori baino larriagoa da Euskal Herri mailako ehuntze, kultura, ekonomia, harreman, sentimenduak... oso ahul ageri direla. Kirolean, esaterako, asko apaldu da euskal selekzioen aldeko aldarria, eta euskal selekzioak EAEko selekzioekin ordezkatu direnean garaipen nazionalizat hartu da. Edonola ere, panorama horren aurrean, Hego Euskal Herriko ume eta nerabeek naturaltasunez nahiago dute Espainiak irabaztea; areago, kasu batzuetan animatu ere animatzen dute, suhar. Inguruko guraso asko ardotan ari

gara gure etxe lotsak itotzen, zer sufritu beharko genukeen pentsatzen, Marokoren rengatik izan ez balitz.

- Aurrekoan, bertso eskolako ume batzuei esaten nien ea youtuberrak ikusi ordez, youtuber egingo ote ziren... euskaraz. Begiratu zidaten apaiz misiolari bat banintz bezala. Youtuber baten helburua da jarraitzaile eta ikustaldi pila bat izatea, beraz, euskaraz? Orduan, esan nien ni munduko tontoena izango nintzela txikitari euskaraz jakin ez, eta nire gauzatxoak gaztelaniaz egin ordez euskaraz egitea erabaki nuelako. *Bai* erantzutera ez ziren ausartu, baina entzun, entzun nuen.

ETB hasi berri hartan, euskara ulertu gabe ere inoiz edo behin ikusten nituen marrazki bizidunak euskaraz, erdarazko programazioak aspertzen baninduen. Ondoren, 90. hamarkadan euskaraz ez genekien askok nahi izan genuen euskara ikasi eta erabili: hartara, *Goenkale* ikusten genuen, baita euskarara bikoiztutako hainbat film eta telesail ere... Bitartean, Espainiako partidak Hala Bedi-n UHTren bidez jarraitzen genituen, espainiar infanta eta printzearen ezkontzak bezala: uholdea etorriko balitz barre pixka bat egiteko, behintzat.

Dena likidoa eta *post* den sasoi honetan, bada zerbait solidoa eta haztagarria: España! ●

## Euskal unibertsitate sistema, publiko?



**ARANTZA  
GUTIERREZ PAZ**  
EHU-KO IRAKASLEA

Azken hilabeteotan EAEko Hezkuntza Legearen inguruan eztabaida sakon eta interesgarria (ber)piztu da euskal gizartean, eta agerian geratu da hezkuntzak dituen erronken artean jatorriak eta maila sozio-ekonomikoak eragindako segregazioari aurre egitea dagoela.

Eztabaida hezkuntza ez-unibertsitarioan kokatu bada ere, lege-aurreproiektuan jasotzen den euskal hezkuntza zerbitzuaren eta “euskal” unibertsitate sistemaren arteko antzekotasun handia ikusten dut nik. Izan ere, definizio horren barruan parekatzen dira EHU

publikoa eta “irabazi-asmorik gabeko” bi unibertsitate pribatu; sistema duala kolokan jarri da soilik enpresek bultzaturiko zentroak gurean ezarri nahi izan direnean, azken horiek euskal sistematik kanpo kokatuz, eta elitistatztat hartuz.

Askotan izendatzeak maskaratzen du errealitatea eta, sistema barruan egonda ere, maila sozialak mugatzen ditu pertsona askoren ikasteko aukerak (unibertsitate publikoak ere ez ditu bermatzen). Beraz, hezkuntzaren eskubidea jaiotzatik goi ikasketak burutu arte bermatze-ko aukera bakarria publikoan inbertitzea da, guztiona izan dadin. ●